

## BIRZITEK ELKARTEA

### Xedea:

Birziklapenaren eremuan negozio-aukera berriak identifikatu, aztertu eta sustatzea, betiere aurretik dauden enpresentzat jarduera-ildo berriak ekarriz, edo enpresa-ekimen berriak (EEB) sortzea Bizkaiko Lurralde Historikoan.

### Ekintzak:

- Aurreikuspen orokorra: teknologien bilakaera, I+G jarduerak, ingurunearen azterketa eta etorkizuneko agertokiaren definizioa.
- Ideien garapen eta azterketa zehatza: ideien garapena, I+G koordinazioa, prototipoak, merkatuaren eta patenteen azterlanak
- EEBen sorkuntza: negozioaren definizioa, negozio-planen garapena, merkatuaren azterlanak, produktuaren garapena eta proba pilotuak.